



INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA:

ADMINISTRAZIO-ERAIKINEN ERAIKUNTZA BERRIA (PROIEKTUA IDAZTEA)

Prestatze-data: 2014

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA

Dibulgazio-dokumentu hau helburu berbera duen dokumentu multzo baten baitan sartzen da, hots, **ingurumen-alderdiak** erakunde publiko zein pribatuen **erosketa eta kontratazioetan sartzeak** dituen abantailak erraztu eta dibulгатzea helburutzat duen dokumentu multzo baten baitan.


Dokumentu honek modu garbian azaldu nahi du zein diren kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak, ingurumen aldetik arduratsua den erosketa edo kontratazio bat egiterakoan. Kontuan hartu beharreko alderdi nagusiak berrikustez gain, gogora ekartzen ditu ingurumena errespetatzen duten produktuak/zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa garrantzitsuenak. Bukatzeko, jarraibideak ezartzen ditu erosketa eta kontratazio prozesuaren une bakoitzerako, prozesua arrakastaz amaitu ahal izateko.

KONTRATAZIO ETA EROSKETA PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURU PRAKTIKOA

Eusko Jaurlaritzak berak –Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez-prestatutako laguntza-tresna nagusia da.

Eskuliburu honek erosketa eta kontratazio publiko berdea modu integralean gauzatzeko beharrezkoa den informazio guztia biltzen du, administrazio publikoaren tipologia guztiak kontuan hartuta.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA

INGURUMENARI KALTE TXIKIAGOA EGITEN DIOTEN ERAIKUNTZA-PROIEKTUAK KONTRATATZEA

Eraikuntza lanak, hirigintza lanekin batera, erosketa publiko berdeak egiteko lehentasunezko esparruetako bat dira. Batez ere, bi arrazoirengatik:

- Administrazio publikoen urteroko gastu nagusietako bat eraikin berriak egitera, daudenak berritzera eta haiek kudeatu eta erabiltzera zuzenduta dagoelako.
- Eraikuntzak ingurumenean ondorio handiak dituelako.

Kontratazio eta erosketa berdearen bidez, eragin positiboa izan daiteke eta ingurumenaren gaineko ondorioak murriztu, bizitza-zikloaren etapa guztietan ingurumen-irizpideak integratuz: hirigintza-plangintzan, diseinuan, eraikuntzan, erabileran, mantentzean eta bizi-amaieran.

Jarraian, kontuan hartu beharreko *funtsezko kontzeptu batzuk, ingurumen-irizpideak*, eta bestelako datu garrantzitsu batzuk azalduko dira, mota horretako lanetarako proiektuak kontratatzeke orduan erabilgarri gerta dakizkigukeenak.¹

¹Irizpide eta gomendio hauek, bulego-eraikinetarako pentsatuta egon arren, beste mota batzuetako eraikinetan ere aplikatu ahal izango dira (komertzialak, industrialak, erresidentzialak).



ZER JAKIN BEHAR DUGU

Eraikin berri baten bizitza-zikloan ingurumen-irizpideak integratzeak horren ingurumen- inpaktu ahalik eta gehien murriztea du xede. Hori zehazki ezagutzeko, hona hemen zerikusia duten hainbat ideia:

Kontzeptu nagusi batzuk

Zein dira eraikin administratiboen eraikuntza-lanei lotutako ingurumen inpaktuak?

1. Lehengai naturalen kontsumo handia. Zenbait kalkuluren arabera, urtean kontsumitzen diren natur baliabideen kopuru osoaren % 40-50 eraikuntzarako material eta produktuak egiteko erabiltzen da.
2. CO₂ hondakin eta isuri bolumen handien sorkuntza.
3. Bestelako inpaktu negatiboak, adibidez: lurzorua artifizializazioa, biodibertsitatearen galera...

Inpaktu horiek minimizatzeo, zer neurri har daitezke beren bizitza-ziklo osoan?

- Eraikinaren kokapena, orientazioa eta gune berdeen banaketa ondo hautatu.
- Hurbileko inguruaren gaineko inpaktuak minimizatu (erasoak landarediari, isurkinen sorketa, zarata, gas eta hauts emisioak...), jardunbide egokiak, makinak eta ibilgailuak ondo erabilia.
- Eraikuntza-esparruan oinezkoentzako eta ibilgailuetarako mugikortasun eta erabilgarritasun baldintza egokiak bermatzea.
- Ur, energia eta erregaien kontsumoan eraginkortasuna arrazionalizatu eta maximizatzea.
- Ingurumenari begira hobeak diren produktu eta materialak aukeratu eta erabiltzea, berriztagarriak, birziklatuak, substantzia toxikorik gabekoak... hobetsiz.
- Barruko kalitateari begira neurriak aplikatu (erosotasunari, airearen kalitateari eta osasunari dagokienez).
- Hondakinen sorkuntza minimizatzeo neurriak hartu eta sortutakoen kudeaketa egokia bermatu.

Gai honekin lotutako ingurumen ziurtagiriak: zeintzuk dira eta zer bermatzen dute?

- Proiektua idatzi eta gauzatzeko ardura duten **arkitektura edo ingeniari-tza enpresen ziurtagiriak.**
 - Idazketa faserako, arkitektura edo ingeniari-tza enpresetarako UNE-EN ISO 14006:2011 ekodiseinu araua kontuan har daiteke. Enpresak bere proiektu

Kontzeptu nagusi batzuk

berri guztietan ekodiseinu irizpideak aplikatzen dituela bermatzen du (ez, ordea, enpresa barruko kudeaketan).

- Lanen gauzatze faserako (zehazki, ikus hirigintza-lanei buruzko laburpen-fitxa), enpresek ingurumen kudeaketa sistemaren baten ziurtagiria (EMAS, ISO 14001, Ekoscan, eta abar) izatea lehenetsiko da, edo legeria betetzen dela eta lanak gauzatzeko ingurumen jardunbide egokiak aplikatuko direla ziurtatzen duen antzeko bat.

Ekoscan	EMAS	ISO 14001	UNE-EN ISO 14006

OHARRA: ISO 14001 eta UNE-EN ISO 14006:2011 arauen kasuan, sistemaren logotipo estandarrik ez dagoenez, erakunde ziurtatzaile baten bereizgarriak agertuko dira; kasu honetan, AENOR-enak.

- **Produktuaren ekoetiketa ofizialak.** Eraikuntza-produktuen aniztasun handia dela eta, ez dago guztietarako ingurumen ziurtagiririk. Dena dela, hauek dira produktu mota horiei aplikatu ahal zaizkien ekoetiketak:

Ekoetiketa	Logo ofiziala	Deskribapena
Europako Etiketa Ekologikoa (Europar Batasuna)		Kanporako eta barnerako pintura eta bernizei aplikatzen zaie, baita estaldurei (egurrezkoak, oihalak eta zurrunak), lanparei eta bero-bonbei ere.
Aingeru Urdina (Alemania)		Produktu mota asko biltzen ditu: material bituminosoak, birziklatutako beirazko eta paperezko eraikuntza-materialak, taulak eta bestelako egurrezko produktuak, baterako sorkuntza eta klimatizazio unitateak, eraikuntza-makinak, ur hotz eta beroaren tangak, estalgarriak, isolatzaileak, lanparak, pinturak eta bernizak, sistema fotovoltaikoak, osasun-ekipamendua, etab.

Kontzeptu nagusi batzuk

Beltxarga Zuria (Eskandinaviako herrialdeak)		Estalgarriak, klimatizazio sistemak, egurrezko produktuak, pinturak eta bernizak eta kanpoko leiho zein ateark barne hartzen ditu.
Ingurumen Kalitatearen Bereizgarria (Katalunia)		Batez ere, neurri handi batean osagai birziklatuz egindako produktuetarako da (plastiko birziklatuzko produktuak, pantaila akustikoak, kautxu birziklatua, agregakinak, eta abar), adibidez: osasun-ekipamendua, galdarak, egurrezko produktuak, etab.

OHARRA: Ihebeko *Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburu* praktikoan zein hirigintza-lanen, ibilgailuen edo lorezaintza zerbitzuen laburpen-fitxetan, bestelako ekoetiketa garrantzitsu zenbait zehazten dira (besteak beste, BEBa edo BZES-a, modu jasangarrion kudeatutako baso edo sailtako egurrerako).

- **Eraikinetako energiaren egiaztapena.** Indarrean dagoen araudiaren arabera (martxoaren 19ko 47/2007 Errege Dekretua), eraikinek eraginkortasun energetikoko ziurtagiri bat izan behar dute, baita Errege Dekretuaren mende dauden eraikinak 7 klasetan sailkatzen dituen etiketa bat ere. Zehazki, A-tik –energetikoki eraginkorrena– G-ra –eraginkortasun txikienekoa– sailkatuko ditu.

Araudiren arabera, eraikin berriek, gutxienez, E klasekoak izan behar dute. Gainera, ziurtapenak urteko energia kontsumoa eta eraikinaren erabileratik eratorritako CO₂ isuriak ere barne hartu behar ditu.



KONTRATATZEA ERABAKITZETIK KONTUAN IZAN BEHARREKO IRIZPIDEETARAINO

Eraikin berriak ingurumen irizpideak aintzat hartuta egiteko proiektuak kontratatzeko prozesuan, erabakitzeke eta eragiteke zenbait une daude. Zein dira? Nola jardun dezakegu modu jasangarrion?

ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

1. unea Beharrak

Hauxe da erantzun beharreko lehenengo galdera:

- *Eraikin berri bat egitea benetan beharrezkoa al da?* Edo beharrak asetzeko beste aukera batzuk ditugu, espazioaren barne-berrantolaketa, eraikin berberaren parte baten birmoldaketa edo dauden eraikinen birgaitzea, kasu?

Erantzuna aurkitzeko, erabilgarria gerta daiteke *aurretiazko azterketa bat* egitea, hiru egoera posible aztertuko dituen, besteak beste (ingurumen, gizarte eta ekonomia ikuspuntuetatik): eraikinaren osoko berriztatzea, berriztatze partziala edo obra berria. Baita klimatizazio, edateko ur eta epe luzera instalakuntzak berritzeko beharrak ere.

Eraikin berri bat egitea erabakitzen bada, gerora funtzionamendu egokia eta mantentzea bermatzeko, ondokoa komeni da:

- Eraikinaren benetako beharrak aurreikusten eta horietara egokitzen lagunduko duten *zenbait adierazle definitzea eta kalkulatzea* (ur eta elektrizitate kontsumoak, kasu), baita eraikina egitean sare zein erregai kontsumoak eta hondakinen sorkuntza optimizatzea ere.

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

2. unea Eraikin berri baten proiektuaren kontratazioa

Beharrak definitutakoan, ingurumenarekin begirunetsua den eraikin administratibo berri bat eraikitzeko proiektua kontratatzeko, zenbait ingurumen-irizpide barne hartu behar dira: (1) proiektua idatzi eta gauzatzeko ardura izango duen enpresaren hautaketan; (2) eraikin berriaren oinarritzko proiektuan eta/edo gauzatze proiektuan; eta (3) zerbitzuaren gauzatzean.

1. Enpresaren edo idazketa-taldearen hautaketan aintzat hartu beharreko ingurumen-irizpideak:

- Proiektuaren idazketa faserako, ekodiseinua kudeatzeko sistemaren UNE 150301 arauaren arabeko ziurtagiria (eraikuntza proiektuetan ekodiseinu neurriak aplikatzeari buruzkoa) edo antzekoren bat duten enpresak hautatzea gomendatzen da.
- Ez bada horrelakorik aurkitzen, kontratuan, hautatutako enpresak ingurumenarekiko jasagarria den eraikuntza-proiektuen idazketan esperientzia nahikoa demostratu ahal izatea exijituko da.
- Lanen gauzatze faserako, eraikuntza lanetarako ingurumena kudeatzeko sistema

2. unea Eraikin berri baten proiektuaren kontratazioa

ziurtatu bat (EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo antzeko bat) duten enpresei lehentasuna emango zaie.

2. Eraikuntzako oinarritzko proiektuaren eta/edo gauzatze proiektuaren memoriarako ingurumen irizpideak²:

- Planifikazioaren eta diseinuaren gaineko irizpideak:
 - ⇒ Hasiera batean, eraikina nola egin pentsatzerakoan, eraikinak etorkizunean bestelako erabilerak izateko aukera kontuan hartuko da; arrazionalki dimentsionatuko da, epe ertain-luzeko erabilera eta beharrezkoen estimazio bat oinarritzat hartuta; eta instalazioek erabilera eta barne-banaketa aldatzeko malgutasuna izan beharko dute.
 - ⇒ Kokapenari dagokionez, hauek dira jarraitu beharreko irizpideak:
 - Azpiegituraz hornitutako hiri-esparruetan izan dadila, aurretik garatu gabeko partzelak edo gune berdeak alde batera utziz.
 - Lurzoruaren okupazio neurritsua eta hiri-hazkuntzari eustera jotzen duena.
 - Gune berdeen dagokion erreserba egitea (iragazkorrak edo erdi-iragazkorrak, ahal den heinean).
 - Eraikina eguzki-energia pasiboaren hartzea maximizatzeko orientatu.
 - Garraiobideen bidez, oinez eta/edo bizikletaz iritsi ahal izatea, eta mugikortasun egokirako azpiegitura oro izatea.
 - Eraikinak zonaldearen erabilera-dibertsitatea eta osagarritasuna handitzea.
 - ⇒ Bere kalitateari eta eraginkortasun energetikoari dagokionez:
 - Proiektuak eraikinaren eraginkortasun energetikoaren kalifikazioaren kalkulua barne hartu beharko du, baita proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria ere (47/2007 Errege Dekretuak dioenaren arabera), erreferentziatzeko programa informatiko baten edo aintzatetsita dagoen baten bidez.
 - Eraikinaren eraginkortasun minimoa C edo B motakoa izango da; eta, ahal bada, A motakoa.
- Obraren eraikuntza-irtenbideekin lotutako irizpideak:
 - ⇒ Eraikin berria eraikitzeko erabiltzen diren material eta elementuak obraren balio-bizitzaren bukaeran berrerabilgarriak edo birziklagarriak izatea sustatuko da.

² Eraikin bakoitza desberdina denez gero, gauzatze proiektuaren memoria idazterakoan, eraikinerako garrantzitsuak diren irizpideak baino ez dira kontuan hartuko. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, fitxa honetarako erreferentzia den Ihoberen *Eraikuntza iraunkorrerako gidak. Administrazioaren edo bulego eraikinak* eskuliburua kontsulta daiteke.

2. unea Eraikin berri baten proiektuaren kontratazioa

- ⇒ Eraikinaren balio-bizitzaren amaieran eraiste/deseraikitze selektiboa sustatuko duten eraikuntza neurri eta irtenbideak barne hartuz gero, proiektuan justifikatuko dira.
- Araudiarekin lotutako irizpideak:
 - ⇒ Proiektuan, hurrengo arau-xedapenak aplikatzea beharrezkoa den edo ez justifikatu beharko da.
 - 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.
 - 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatze sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek egin behar dituzten lurzoruaren kalitateari buruzko azterketen edukia eta norainokoa zehazten dituena.
 - Otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua. Dekretu horren bidez arautzen da eraikuntza eta eraisketetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa.
 - Eta kontratuaren xedeari aplikagarriak zaizkion beste arau batzuk; udal ordenantzak, bereziki.
- Lurzoruaren egokitzapenari eta lurren mugimenduari lotutako irizpideak:
 - ⇒ Hondakinen sorkuntza minimizatu beharko da, eta obrako hondeaketa eta eraispen-lanetatik eratorritako materialak bertan ahalik eta gehien berrerabili beharko dira.
 - ⇒ Horretarako, proiektuan azterketa zehatz bat egitea aurreikusi beharko da, eta hurrengo alderdiak bilduko ditu:
 - Hondakinen kudeaketa eta eraispen plan bat (proiektuak operazio horiek biltzen baldin baditu), eraistea eta berreraikitze selektiboa sustatzeko neurriak bilduko dituena.
 - Lurzoruaren kalitatea eta kutsadura kontrolatzeko neurriak, horren berrerabilera posiblea aztertze.
 - In situ sortutako eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak berrerabiliz balioztatze proposamena.
 - Hondakin kopuruen eta bertan berrerabiliko direnen estimazioa, zabortegean ahalik eta gutxien uzteko helburuarekin.
 - Lur mugimenduen eraginpeko zonaldeko lur begetalaren berreskurapena, biltegiatze egokia eta berrerabilpen maximoa egiteko beharrezko aurreikuspenak.
- Eraikuntza produktu edo materialei aplikagarri zaizkien irizpideak:
 - ⇒ Agregakinak: agregakin birziklatuak erabiltzea ala ez justifikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko obra publikoetan arido birziklatuak kontratatze eta

2. unea Eraikin berri baten proiektuaren kontratazioa

erabiltzeko zuzentzaruen eskuliburuan bildutako irizpide eta zehaztasunei jarraituz egingo da, betiere materialaren kopuru, kalitate eta hurbiltasun irizpideak betetzen baldin badira.

- ⇒ Egurra eta egurrezko produktuak: legezko iturrietatik etorri beharko dute eta ez CITES-an ³ bildutako espezie mehatxatuetatik. Egurra, produktu-familia zenbaitetarako (leihoak, atekak, sabaiak, eta abar) modu jasangarrian kudeatutako basa-ustiapenetatik etorria eta/edo birziklatua izatea baloratuko da (BEB, BZES edo antzeko ziurtagiriaren bidez egiaztatzen).
- ⇒ Taula aglomeratuak: formaldehido emisio minimoak dituztenak lehenetsiko dira.
- ⇒ Barrurako pinturak eta bernizak: disolbatzaile maila baxua izango dute, eta inongo kasutan ez dituzte hurrengo baloreak gaindituko:
 - Horma-pinturetarako (EN 13300 arauaren edo antzeko baten arabera): 30 g/l (ura kenduta).
 - Bestelako pintura batzuk, gutxienez 15 m²/l-ko errendimendua eta % 98ko opakutasun estalgarritasuna dutenak: 250 g/l (ura kenduta).
 - Gainerako produktu guztiak (15 m²/l-koa baino errendimendu baxuagoa duten hormetarako ez diren pinturak, bernizak, egurrerako tinteak, estaldurak, lurzorurako pinturak eta antzeko produktuak): 180 g/l (ura kenduta).
- ⇒ Eraikuntzarako bestelako material eta produktu familiak: ahal izanez gero, ingurumenari begira hobeak diren produktu eta/edo materialak hautatuko dira,
 - «Arin» berriztatu daitezkeen lehengaiak erabilia fabrikatuak;
 - % 65 baino gehiago lehengai birziklatuekin fabrikatuta; eta/edo
 - I. motako edo horren pareko ekoetiketa ofizial baten konposizio, produktu kimiko eta isuriaren baldintzak betetzen dituztenak.
- Instalazio eta ekipamenduekin lotutako irizpideak (hornikuntza eta saneamendua):
 - ⇒ Iturgintza sanitarioko eta sukaldeko iturgintza instalazio guztiak merkatuko ur-aurrezte teknologia berrienak izango dituzte. Horrek hauxe esan nahi du:
 - Komunitateko zisternak ura aurrezteko deskarga bikoitzeko edo deskarga eteteko sistema izatea, eta deskarga maximoa 6 litrokoa baino txikiagoa izatea.
 - Komuneak sakagailu bikoitzeko fluxoreak izatea eta deskarga 8 litrokoa baino txikiagoa izatea.

³ CITES, mehatxatutako fauna eta flora basati espezieen nazioarteko merkataritzari buruzko hitzarmena. Gobernuen artean adostutako nazioarteko hitzarmena da, fauna eta flora basati espezieen nazioarteko merkataritzak beren biziraupena arriskuan ez jartzea bermatzea xede duena.

2. unea Eraikin berri baten proiektuaren kontratazioa

- Pixatokiak: Pixatokiak lehorrak izatea baloratuko da.
 - Iturriek aurrezte sistema izatea (aireatzaileak, presio edo fluxu murriztaileak), ondoko aurrezte-mailak betetzen dituztenak:
 - Dutxa-buru finko edo higikorretan, ur-etorriak ondokoa baino txikiagoa izan behar du:
 - 10 l/min. bar baterako \leq presioa \leq 3 bar
 - 12 l/min. 3 bar-erako \leq presioa \leq 5 bar
 - Konketa edo harrasketako iturrietan, ur-emariak hurrengo bano baxuagoa izan behar du:
 - 8 l/min. 1 bar-erako \leq presioa \leq 3 bar
 - 9 l/min. 3 bar-erako \leq presioa \leq 5 bar
 - Instalazio eta ekipamenduekin (kudeaketa eta kontrola) lotutako irizpideak:
 - ⇒ Eraikineko kontsumoen segimendua egin ahal izateko, sareen (ura, elektrizitatea, gasa, eta abar), zirkuituen, eta kasuan kasu, solairu/lokal/zonaldeen arabera sektorizatutako kontadoreen instalazioa baloratuko da.
 - Proiektuaren memoriako ingurumen edukiari aplikagarriak zaizkion irizpideak. Hurrengoak bildu beharko ditu:
 - ⇒ Obran erabiltzea aurreikusten diren material eta produktuen zerrenda bat, beren ingurumen ezaugarriak zehaztuta; eta, hala badagokio, ingurumenaren ikuspuntutik hobeak diren produktuen eta ez direnen arteko kostu desbideratzearen estimazioa, baita orokorrean obrarena ere.
 - ⇒ Obra gauzatzeko ingurumen kudeaketa plan bat, bere ingurumen inpaktuak minimizatzeko hartu beharreko neurriak bilduko dituena. Adibidez:
 - Obrako ur eta elektrizitate kontsumoen kontrola eta erregistroa.
 - Obrako hondakinen sorkuntzaren eta gaikako bilketaren kontrola eta segimendua.
 - Obrara egindako bisitetan, programan bildutako ingurumen irizpide guztien betetzea egiaztatzea.
 - Eta bestelakoak, hurrengo aspektuei lotuta: atmosferarako isuriak, zaraten sorkuntza, begetazioa, obra barneko eta inguruko mugikortasuna, komunikazioa eta informazioa, jardunbide egokien hedapena eta langileen trebakuntza.
- 3. Zerbitzua gauzatzeko ingurumen irizpideak:**
- Obran zehar garatuko den dokumentazioari aplikagarriak zaizkion irizpideak:

2. unea Eraikin berri baten proiektuaren kontratazioa

- ⇒ DinA4an entregatutako lanak, txostenak eta materialak paper % 100 birziklatuan entregatu beharko dira, alde bietatik inprimatuta.
- ⇒ Formatu elektronikoa daudenak itxi gabeko CD grabagarri edo antzeko batean aurkeztu beharko dira, berriro erabili ahal izateko.
- Proiektuaren idazketaz gain, obraren zuzendaritza ere kontratatzen bada, lanak bukatutakoan, enpresa eraikitzaileak eraikineko energiaren erabilera eraginkorrari buruzko trebakuntza saio bat eman beharko dio eraikineko administratzaileari/administratzaileei.

Kontratazioa egiterakoan, aipatutako irizpide guztietatik garrantzitsuentzat jotzen ditugunak exijitu edo baloratuko ditugu, eraikuntza obra bakoitzaren arabera.

Kontratazioarako prozedura ireki edo negoziatua erabili nahi duten administrazioek Ihoberen Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburuan aurkituko dituzte Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera pleguan txertatu beharreko irizpideak (hiru eskakizun mailatarako: oinarrizkoa, aurreratua eta bikaintasun maila).

Obren gauzatzearekin lotutako irizpideetarako, hirigintza-lanen laburpen-fitxa kontsulta daiteke, proiektua idazteko zein obrak gauzatzeko irizpideak biltzen dituen.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO...

Esteka interesgarriak

- www.ihobe.eus webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (administrazio- eta bulego-eraikin berrien eraikuntzari buruzkoa da berariazko atal bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du Ihobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, Ihobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.